

Tolosa. Donostia

TOLOSA

Oria ibai zabala sortaldetik daramala, Montezku eta Uzturre magalean Tolosa finkatzen da, 1.256 garren urtetik uri edesti garrantzitsua. Baiñan Tolosan urarte jaiotako Oriaren eta bere adar Erretengibelen erdian.

Aintzina, Tolosa kale-erria arresi-barren bizitu izan zan. Erriaren goraberak bost ataka aztun eta kondairatsuen atzean zeaztuaz. Ate aien barnean urkitzen ziren eliz nagusi ederra, jasokundeko Amabirgiñaren izenekoa, eta bi Udal Etxeak: Plaza Zaarrekoa edo Idiakoz Plazakoa, egun ikus dezakeguna eta Plaza Berrikoa edo Euskal Lege Zaar Plaza, gizal onen irugarren amarurtetan izkutatua.

Kale estu baiñan txukun eta zelaiak ageri izan ditu beti Tolosako erriak. Berain zear banatzen ziren Errege Izkillugintza, Domenjon Gonzalez Andiaren dorre etxea eta Aranburu, Idiakoz, Atodo eta beste jauregiak. Auen inguruan ugaritzen eskulangintzategi apalak, beren uzturrenak gaurdaiño iritxiaz, eta baita ere bear-bearrezko dendatxoak, azoka egunetarako aberats eta osagarri. Denbora batean merkatu aukerak asteko iru egunetan izaten ziren: astearte, ostegun eta larunbatez, eta abere sal-erosketa illaren leendabiziko asteleanean. Tolosako periak eskualdeetan oso ezagunak dira, gauregun larunbat eta astelen guztietan ospatuaz.

Atez kanpotik Santa Klara mojetxea eta prantziskotarren prailletxea. Izaskungo Amabirgiña izen bereko menditik erri-zaindari dela, atez at ere elizatxoak, gaur batzuk izkutatuak, zabaldu dira anemenka, Haratz auzoetan. San Esteban, Yurreko Amabirgiñarena edo San Blasena eta Madalenarena, parroki edo eliz-pontek izanak, eta Santa Luzia, San Juan Arramelekoa eta San Migelena, au Yurreamendi jauregi orogarrria bere inguruan zuala. Urruti-xeago, aaztu xamar eta bakardade osoan, Zipirio basaelizatxoak, Urkizu tolosar auzobidean. Inguru baillara auetatik urrun Aldaba eta Bedaiokoak, au Naparroakin mugatua.

Urtean zear, atek irikiak erria zabaltzen joan zan. Sartaldera eta Iparraldera, Naparrora eta Gaztelera zijoazten atari ondoko bideak kale biurtuaz.

Orrela sortu ziren egun Justizi Plaza dana, Aita Larramendi eta Moja kaleak eta baita ere San Prantziskorena.

Onen sor-lekua Aita Eskolapiotako plazatxoan dugu. Emen arkitzen dire lekaide auen eliza eta Gipuzkoako Aldundiaren etxea. Eta Aldundi au aipatuaz esango dugu Tolosa izan zela Gipuzkoako Uri-nagusia 1844tik 1854ra.

San Prantzisko Kale edo Ibil-toki honetan zegoen pelota leku irikia, andia eta kirol mota batzuen ager-tokia, 1935garren urtezkeroko estalia. Diru-etxe onek Arantzaben etxetxoan izan zun bere aurren lekua eta, bertan, urte eztaiak ospatu ondoren eskuz eta izenez aldatu. Kale berean ikus dezakegu ere Sortzez Garbiaren eta Jesusen Alaben ikastetxeak, Probintziko Agiritegi garrantzizkoa eta lehen aipatu dugun prailletxean eleiza, Anbrosio Bengoetxearen pizkunde erretablu distiratsurekin.

San Prantzisko kale onek Zezen Plazara garamazki. Plaza au 1903garren urtean eraiki zan, eta bertan antolatzen dire San Juanetako zezenak, leiaketak eta beste jaialdiak, batez ere lñauteritakoak. Tolosarrak azaldu dute urte eta gizaldi zear beren aalmen eta irudimen berezia lñauteri egun auen jartzaille bezela.

Amaitzeko itzuli gaitezen San Prantzisko Ibil-tokira. Prantziskotarren izena daraman kale au luzea eta zabala azaltzen da. Nere begitarako Tolosak dun kalerik ederrena.

DONOSTIA

Nere Donostiako ikusmira oroigarritzko betaurrekoekin egina da. Nere begi eta irudimena atzokora doaz, uri bildu eta atoskor batera, geienbat sugarretan betiko joan eta izkutatu zena.

Donostiarren egun-arruntak uribarnean igarotzen ziren, mikelete eta urizainpean. Jasokunde ta San Bizenteko ezkil doñu ezagunak entzunez. Bertan zituzten beren bearrezko lantegiak eta an ospatzen zituzten ere oiturazko jaialdiak. Ondartzak urruti eta aaztu xamarrak zeuden, lekuko arduratsuenak olatuak ziren, bein eta berriz ondar bakartiak eta otzak miazkatuaz.

Donostiko erria liberala zan geiena. Eta ez au bakarrik, baizik uri au izan zuten gipuzkoar liberalak bere gordelekua. Donostiar gizon aietatik aipatu ditzagun Jose Manuel Collado, R. Etxague, Lersundi, F. Lasala eta F. Calbeton. Gizon politiko au pelotazalea genduan eta bazekian bere atsedenaldirtoak Pantaleon Olazabal txisteragillearen lantegian igarotzen, aulki eta saski artean, txirbillez estalitako zoru gañean.

Donostiar liberalismoa erri euskaldunakin batutzen det. Euskara zan izkuntza orokorra, ez ogi-bidea bezela bakarrik, baita ere jakintza eta jaialdi maillan. Erri-jakintza ontan oroituko ditut, beste askoren artean, Jose Bizente

Etxagarai, S. Baroja, Bilintx, Jose Manterola, A. Peña y Goñi, Jose Juan Santesteban eta Martzelino Soroa. Ez dut zalantzarik Sarriegiren eresi errikoiak Donosti zaar artan zuala bere entzun-toki egokiena.

Tolosa. Donostia / Juan Garmendia Larrañaga. - En :
[*Calendario 1979. Conmemorativo del Centenario de la CAM: fotografías retrospectivas*] . - San Sebastián :
Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián =
Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, [1978]. -
[24] p. : il. ; 49 cm. - P. [2]